

## **2021EKO APIRILAREN 20AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO OTSAILAREN 16KO ETA MARTXOAREN 9KO BILKUREN AKTAK).

2.- ZEGAMA KO POLIKIROLDEGIKO GIMNASIOKO ETA UDAL-IGERILEKUKO (ETA TABERNA) ZERBITZUAK OSOKI KUDEATZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA BIDERATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHAZTEN ETA TEKNIKOEN ONARPENA.

3.- 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

4.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak, gai zerrendan agertzen ez den honako gai hauek eztabaidatzea proposatzen du:

- 2/2021 Kreditu aldaketaren onarpena. Kreditu transferentziak. (Zentzu honetan azaltzen du, aldaketaren helburua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak bideratutako Oroimen Historikoa berreskuratzeko 2021eko diru-laguntza programaren barnean laguntza eskaera bideratzeko beharrezkoa den kreditu nahikoa jasotzea dela).

Proposamenaren izaerak ikusi eta hau eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez erabakitzen du gaia bilkura honetan eztabaidatzea.

### **1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO OTSAILAREN 16KO ETA MARTXOAREN 9KO BILKUREN AKTAK).**

Alkateak, 2021eko otsailaren 16ko eta martxoaren 9ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Idazkariak azaltzen du, otsailaren 16ko aktan Odolki Kofradiarekin adostutako hitzarmenean jasotako datak ez direla zuzenak, eta horrenbestez, zuzenak diren datak, 2020ko urtarrilaren 21ean jasotako datak direla.

Ez da bestelako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

### **2.- ZEGAMAKO POLIKIROLDEGIKO GIMNASIOKO ETA UDAL-IGERILEKUKO (ETA TABERNA) ZERBITZUAK OSOKI KUDEATZEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA BIDERATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ETA TEKNIKOEN ONARPENA.**

Zegamako “polikiroldegiko gimnasioko eta udal igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratazioa” abian jarri eta garatzeko beharra dagoela ikusirik eta udal zerbitzu teknikoek preskripzio tekniko zehatzen orria eta administrazio baldintzen orria zein txostenak osatu dituztelarik.

Honekin batera adierazten da, kontratuaren zenbatekoa kontuan hartuta, Udalbatzararraren eskumena dela kontratua esleitzea baina, tramitazioari begira, eskaintzak sailkatzeko eta kontratua formalizatzeke alkateari eskuordetza ematea proposatzen da.

Udalbatzarrak, eta bertaratutako kideak aho-batez onarturik, honako hau onartzen du:

**LEHENENGOA.-** Zegamako “polikiroldegiko gimnasioko eta udal igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratazioa” garatzeko zerbitzuaren kontratazio-espeditzea hastea, jardunbide ireki eta presazko izapideak erabiliz.

**BIGARRENA.-** 64.130,00 euroko gastua onartzea; horietatik, 53.000,00 euro printzipalari eta 11.130,00 euro %21eko BEZari dagozkie, honako aurrekontu izendapen honen lepotik:

1.0000.227.07.342.30.2021

1.0000.227.99.342.20.2021

**HIRUGARRENA.-** Lizitazioa eta kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Tekniko Zehatzen Orria onartzea.

**LAUGARRENA.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzea, lizitatzailleek euren proposamenak hamabost (15) egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Tramitazioari begira, eskaintzak sailkatzeko eta kontratua formalizatzeko alkateari eskuordetza ematea.

**BOSGARRENA.-** Ebazpen honen berri Kontabilitate unitateari ematea.

#### ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka Kontratuen inguruko errekurtsoen organoaren aurrean aukerako kontratazioaren gaiko errekurtsu berezia jar daiteke hamabost lan eguneko epean kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. Artikulua araber, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik.

Bestalde, Donostiako Administrazio- Auzietako Epaitegian zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzierrekurtsua bi hilabeteko epean, erabaki hau eta dokumentazioa kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; hau guztia, bidezkotzat jo litekeen beste errekurtsoz gainera.”

### 3.- 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko martxoaren 18ko 011/0321 Alkatetza Dekretuaren berri eman du, hitzez hitz honako hau delarik:

“ Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		437.552,55
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		455.458,25
Aurrekontuko zordunak :	453.660,30	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.797,95	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		245.869,59
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	203.724,20	

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	42.145,39	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		647.141,21
5.- Saldo kobragaitzak:		30.517,22
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		616.623,99

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		20.240,42
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-17.439,99
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		119.547,70
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):		122.348,13

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		262.332,29
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		394.928,02
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):		657.260,31

**Bigarrenena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udaltzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Era berean, espedienteen jasotzen diren, Idazkariaren txostena, egonkortasun txostena eta inkorporatutako kredituen informazioa eman da.

Udaltzarrak, erabakiaren berri jasotzen du.

#### **4.- GOIERRIKO EKIMENA S.A. BATZAR OROKORREAN AZTERTUKO DIREN GAIEN ONARPENA.**

Goierriko Ekimena S.A. sozietateak 2021eko martxoak 1eko Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2021eko ekainaren 7an Ohiko Batzar Orokorra ospatuko duela adierazten da, bertaratzeko deialdia eginez.

Batzar Orokor horretan, gai zerrendako ondorengo puntuak erabakiko direla jakinarazten da:

- 1.- 2020. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena aztertu eta onartu. (Txostena eranstean da)
- 2.- Administrazio Kontseiluko kargudunen dimisioa eta izendapena.  
Aitor Aldasoro Iturbe jaunak sozietateko administratzaile karguari uko egitea eta haren ordez Mikel Plazaola Oyarzabal izendatzeko proposamena egitea.
- 3.- Bi kapital-handitze proposatzea eta onartzea: (Txostena eranstean da)
  - 3.1.- Lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea.
  - 3.2.- Balantzeko "beste zor batzuk" partidaren kargura. Kredituak konpentsatzeagatik
  - 3.3.- Bazkideen (udalen) diru-ekarpenen bidez, beren biztanleriaren pisuaren arabera, aurreko atalean sortutako ehunekoen arabera.
- 4.- "Kapital soziala" sozietatearen estatutuetako 5. artikulua aldatzea. (Txostenean azaltzen da)
- 5.- Galde eskeak.
- 6.- Batzordearen akta irakurtzea eta onartzea.

Zegamako Udalak, Udalbatzarrak 2020ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Goierriko kapital zabalkuntzaren proposamenari buruzko erabakia hartu zuen.

Zentzu honetan, Batzar Orokor horretan aztertuko diren gaiak, udal bakoitzak aurrez aztertu eta erabaki behar dituela kontuan hartuz, Alkateak, adierazitako agirien berri eman eta hauen onarpena egitea proposatzen du.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako puntuak onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

#### **5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 06/0321 erabakia, martxoaren 10ekoa, Udal-Idazkariak bere lanak telelana bidezko modalitate ez-presentziala bidez burutzen jarraitzeko egindako eskaera onartuz.
- 07/0321 erabakia, martxoaren 15ekoa, 5 zenbakidun fakturen erlazioa (martxo), guztira 53.654,11 euro, onartuz.
- 08/0321 erabakia, martxoaren 16koa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 09/0321 erabakia, martxoaren 16koa, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko kudeaketa kontratua ez betetzeari buruzkoa, eta kontratua suntsiarazteko espedientea bideratzeko aginduz.
- 010/0321 erabakia, martxoaren 17koa, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko kudeaketa kontratua suntsiarazteko espedienteari hasiera emanez.
- 011/0321 erabakia, martxoaren 18koa, 202ko aurrekontuaren likidazioa onartuz.

- 012/0321 erabakia, martxoaren 23koa, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko kudeaketa kontratua suntsiaraztea onartuz.
- 013/0321 erabakia, martxoaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 014/0321 erabakia, martxoaren 23koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 015/0321 erabakia, martxoaren 23koa, Zegamako kirol zerbitzuak aldi-baterako kudeatzeko esleipena onartuz.
- 016/0321 erabakia, martxoaren 25ekoa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 017/0321 erabakia, martxoaren 25ekoa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 018/0321 erabakia, martxoaren 30ekoa, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko kudeaketa kontratuko langileei ordaindu gabe utzitako gizarte segurantzako likidazioak eta ordainsariak ordaintzea erabakiz.
- 019/0321 erabakia, martxoaren 30ekoa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa (martxoa 2), guztira 12.695,06 euro, onartuz.
- 01/0421 erabakia, apirilaren 12koa, egurra ateratzeko baimena emateagatik ezarritako fidantza itzultzea erabakiz.
- 02/0421 erabakia, apirilaren 14koa, egurra ateratzeko baimena emateagatik ezarritako fidantza itzultzea erabakiz.
- 03/0421 erabakia, apirilaren 14koa, polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratazio espedientea bideratzea aginduz.
- 04/0421 erabakia, apirilaren 19koa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 05/0421 erabakia, apirilaren 19koa, 7 zenbakidun fakturen erlazioa (martxoa), guztira 53.654,11 euro, onartuz.

## **2/2021 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA. KREDITU TRANSFERENTZIAK.**

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2021-KALD-000002-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasuneko Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzarrak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau, **ERABAKI DU**

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	145.000,00	12.100,00	132.900,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	<b>GUZTIRA</b>	<b>145.000,00</b>	<b>12.100,00</b>	<b>132.900,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	0,00	12.100,00	12.100,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>12.100,00</b>	<b>12.100,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

**6.- GALDE ERANTZUNAK.**

Ez dira adierazten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021eko .....k .....

**O.E./ V°B°  
ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2021.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**